

Independentzia eta burujabetza

Iazkoa errepikatzeko asmorik gabe, baina urtebeteren buruan ikuspegiak zertan diren jakiteko asmoz joan naiz aurten ere Kosovoko independentzia aldarrikapenaren egunera. *Free lance* kazetariak ondo egin behar izaten ditu kalkuluak, etxera sekulako zuloarekin itzuliko ez bada, baina 2008an ondo nekien Kosovok merezi zuela, ekonomikoki kale egin arren. Batek daki beste independentzia egunen bat bizi duzun, motell

Hurrengoak, egotekotan, Eskozia edo Groenlandia edo Feroe uharteak izan litezke, hau da, metropoliaren errepresio handirik gabe aska daitezkeen herrialdeak, hala erabakiz gero. Kosovon baina, erabateko askapen eguna zirudien independentziak. Goiko adibideen eta Balkanetakoaren artean dagoen ezberdintasuna da, lehenek estatu burujabea osatzeko grina daukatela, XXI. Mendean posible den soberania mota. Kosovon baina, independentzia zen lehendabiziko helburua, hau da, Serbiarekiko dependentzia betiko etetea, Serbiatik bereiztea. Ehuneko 90 diren albaniarren ametsa, gaur egun ezinezko dela jakinagatik, Albaniarekin bat egitea da, inoiz ez zuten Kosovoko Estatuan, bandera edo, are gutxiago, “kosovoar” naziotasunean pentsatu. Uda honetan argiago ikusi dugu: osetiarrek independentzia nahi zuten, Georgiatik bereizteko



INIGO AZKONA

soilik, inola ere ez estatu eratzeko, iparraldeko osetiarrekin, eta beraz Errusiarekin bat egiteko urratsa zaie soilik independentzia.

Vetevendosje (autodeterminazioa) mugimenduko gazteak independentzia honen aurka mintzatu dira. Hedabide askotan ultranazionalista deitu diete, funtsean jarrera anticolonialista sakona daukatelako: mendebaldetik ezarritako independentzia eredu barik, Kosovoko biztanleek eurek onartutakoa aldarrikatzen dute. “Independentzia lortu dugu, baina burujabetzarik ez, mendebaldeak erabakitzen du hemen zer egin, eta Kosovoko gobernua da horren berri duen azkena” esan zidan Albin Kurti Vetevendosjeko buruak.

Horixe errealitatea Kosovon. Sarraskia sufritu zuten, munduko boteretsuekin ondo jokatu dituzte kartak (Irakeko kurduak ere bai, eta burujabetza puntu bat bai, baina independentzia erabat baztertu dute, geopolitikak eragozten die), eta halere, Estatu herren bateko herritar dira. 57 herrialdek onartu dituzte, hau da, 130ek baino gehiagok ez dituzte onartu, tartean, Espainiak. Mendebaldeko European Serbian daukan lagun onena bihurtu da. Eta Kosovoko albaniarren euskaldunokiko sinpatia da iaztik hona nabaritu dudana, Espainiak ez onartzea “gure erruz” dela jakin arren. ■



Kosovoko albaniarren euskaldunokiko sinpatia da iaztik hona nabaritu dudana, Espainiak ez onartzea ‘gure erruz’ dela jakin arren



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Urte badira Gorka Agirre ezagutu nuela. Donibane Lohizuneko

hondartza inguruan zeukaten inprimategian zuten arduraren bat. Kasik egunero ikusten genuen elkar Sabin Etxean, Chez Pablon. Besteren artean, Zumaiako Zubizarreta *Xubi* genuen elkarren lagun, gure aiten adinakoa izanagatik, berdintasunean tratatzen gintuena. Urte gogorak ziren: GAL. Gorkarentzat EAJ herri-leku zen, inoiz ez zigun ezkutatu harekiko diziplina, bere munduaren ikuskeran oinarri zuena. KASen sorrerak ziren. Handik gutxira Bilbora egin zuen. Lehenengo Jaurilaritza eta gure auzoen arteko urruntze bortitza. Ertzantzaren sorreran zebilen.

Hogeita hamar

Generalitatearen Mossoenean ere izan zuen eraginik. Auzotik auzora ikusteko, largabistaren

beharra izaten genuen. Halere, noizbehinka saiatzen ginen harremanik izaten, eta Donibane Lohizuneko Sabin Etxean, *Xubiren* anparotan biltzen ginen otorduren bat aitzaki. Hitzeko gizona, laguntza hitza zuen gustuenetakoa, nahiz eta gutxitan izan ahalmenik hura gauzatzeko. Azkenaldion telefonoa izan genuen zubi, Bilboko Sabin Etxea urrunegia nuen. Lagunak hautatu egiten ditugu, lagunek hautatu egiten gaituzte, eta Gorkak bazekien harremanak elikatzen. Ez dut agendatik ezabatu. Gaitz egiten zait onartzea ez dudala inoiz gehiago berarekin hitz asperturik izango. ■